

Hirigintza eta euskara: marko orokorra

Unai Fernandez de Betoño Saenz de Lacuesta

EHU/UPV - Euskal Herriko Unibertsitateko Hirigintza irakasleaa eta UEUkidea

unai.fernandezdebetono@ehu.es

Sarrera-data: 2014-04-15 / Onartze data: 2014-06-05

Laburpena: Lurralde-antolakuntzaren eta hirigintzaren jakintza-arloek zerikusi handia dute hizkuntza-dinamikekin, giza funtzio guztiak espazialki antolatzen dituzten heinean. Hizkuntzalaritzatik gero eta gehiago aldarrikatzen ari da hizkuntza-politikaren lurralde-ikuspegia. Hirigintzatik, ordea, ez da gehiegi kontuan hartzen, harrigarria bada ere. Bada garaia, beraz, hirigintzaren alorrean ere hizkuntza-ikuspegia txertatzeko. Etxebizitza-, ekipamendu- eta azpiegitura-kantitateari dagokienean zein hiri-ereduaren kalitateari dagokionean. Euskara bezalako hizkuntza minorizatuak osasuntsu biziraungo badute lurralde-antolakuntzatik datozen arauak eta planak ere baldintzatu behar dituzte, ingurumenak baldintzatu dituen bezalatsu. Garapen sozioekonomiko arduratsu, orekatu eta aberasgarria egiazki erdietsi nahi badute, Euskal Herriko lurralde-antolakuntzak eta hirigintzak ezin dute gehiago alboratu berezko hizkuntza eta hiztun-komunitatea. • **Gako-hitzak:** *lurralde-antolakuntza, hirigintza, hizkuntza, euskara.*

Abstract: The disciplines of spatial planning and town planning have much to do with language dynamics, insofar as all human functions are spatially organised. Linguistics is increasingly calling for a territorial perspective of language policy. Surprising though it may seem, town planning, however, is not taken into consideration that much. So it is time that the language perspective was incorporated into the sphere of town planning. With respect to the quantity of housing, urban facilities and infrastructure, and also as far as the quality of the urban model is concerned. If little-used languages like Basque are to survive in a healthy way, they also have to determine the rules and plans coming from spatial planning, just as the environment determines them. If they really want to achieve responsible, balanced and enriching socio-economic development, the Basque Country's spatial planning and town planning can no longer ignore the local language and speech community. • **Key Words:** *spatial planning, town planning, language, Basque language*

SARRERA: LURRALDEA, HIRIGINTZA ETA HIZKUNTZA

Gizakiak aurrera eramaten dituen funtzio guztiak adierazpen espazial zehatza dute. Nonbait gertatzen dira. Ukiezinagoak diruditen funtzioek ere behar dute euskarri fisikoren bat. Giza funtzio gehienek, gainera, lur zati bat beharrezko dute mundu errealean garatuko badira. Lurzorua okupatzen dute nola edo hala. Eta Lurra izeneko espazio-ontzi zahar honek azalera mugatua duenez, lurraldeagatiko nolabaiteko gerra bat jazotzen da aspalditik, dezente areagotu dena norbaitek jabetza pribatua asmatu duenetik; zer esanik ez nazioak asmatu direnetik; eta esan beharrik ez Industria Iraultzaren ondoriozko demografiaren gorakada nabarmenki biderkatu denetik. Lurraldeagatiko gerra horretan, funtzio eta jabego batzuek beste batzuk ordezkatzeko dituzte, eta lekuz aldarazi. Giza funtzioak —lo egin, lan egin, gorputza eta adimena landu, mugitu— jaso behar dituen lurraldea mugatua eta irregularra denez, adierazpen fisikoa duen bereizketa bat gertatzen da haiek nonbait zehazki kokatzerakoan. Espazio-segregazio bat jazotzen da, nahi ala ez, giza funtzioak fisikoki ezartzeko aukerak ez direlako mugagabeak, batetik, eta kokalekuak hautatzerakoan botereak (ekonomikoa, demografikoa, militarra) zeresan handia duelako, bestetik.

Hizkuntzalariek hizkuntza-aldaerak aztertu dituzte, dialektoak kokapenaren arabera sailkatuz; adibidez, Luis Luziano Bonapartek euskalkien hedadura-mapa bat egin zuen 1863an (*Carte des sept Provinces Basques*). Hirigileek giza finkamenduak aztertu dituzte, hiriak kokapenaren arabera sailkatuz; adibidez, Julio Caro Barojak orografia eta hidrografiaren arabera euskal herrien sailkapen bat egin zuen 1949an¹. Bai euskalkien hedapenari dagokionez bai giza finkamenduen kokapenari dagokionez, hortaz, espazio-bereizketa argia dago. Hori baitute amankomunean euskarak eta hirigintzak, hasteko: euskal hiztunak, nomadak ez diren gizaki guztiak bezala, giza finkamenduetan —baserrietan, herrietan, hirietan— bizi direla. Ondorioz, giza finkamendu horiek baldintzatzen dituzten prozesu guztien eragina ere jasotzen dituzte hiztunek.

Ez da kasualitatea Euskal Herriko lurraldeak dituen hiru erliebe-unitate morfologiko nagusiek bat egitea hiru giza finkamendu mota garrantzitsuenekin, eta, halaber, bereizketa espazial hori erabat uztartuta egotea euskal hiztunen hedaduraren bilakaerarekin. Hegotik iparrera azalduta, lehenik, Arabako eta Nafarroako Ebroren sakonunea dago, historikoki hiri handi eta urrunekoen kokaleku izandakoa (Industria Iraultza arte, behinik behin); bertatik desagertu zen euskara lehendabizi. Bigarrenik, Euskal Herriko erdialdeko goi-ordokiak —Arabako Lautada

Hori baitute amankomunean euskarak eta hirigintzak, hasteko: euskal hiztunak, nomadak ez diren gizaki guztiak bezala, giza finkamenduetan —baserrietan, herrietan, hirietan— bizi direla. Ondorioz, giza finkamendu horiek baldintzatzen dituzten prozesu guztien eragina ere jasotzen dituzte hiztunek.

Eta harrigarria da, ondareaz eta tokiko identitatea mantentzeaz asko mintzatzen direlako bai hirigintzako legeak bai hirigileak. Zaindu beharreko ondare bakarra arkitekturaren eta ingurumenaren alorrekoa balitz bezala.

Hizkuntzaren faktorea ere kontuan hartzea, beraz, ez litzateke horren harrigarri, euskararen eta hirigintzaren arteko harremana ondo ikertuz eta azalduz gero.

eta Iruñerria— eta biak lotzen dituen korridorea —Sakana— daude, herri txiki eta gertuko kokagune izan direnak; bertako leku askotatik desagertu dira, nahiz eta beranduago, euskal hiztunak. Eta, hirugarrenik, ipar-isurialdea dago, baserri bakartuen eta auzo barreiatuen kokaleku; lur-zati horretara mugatzen da egungo euskaldunen lurralde nagusia.

Esandako lurralde-, hirigintza- eta hizkuntza-erlazio hirukoitza Barojak berak azaldu zuen 1949an, antropologiaren ikuspuntutik (2000: 46), eta, soziolinguistaren batek azken hamarkadotan berriro aipatu badu ere (Etxegoien, 2001: 36-38), ez da askoz gehiago ikertu, baserriaren eta kalearen arteko ohiko dikotomiaz harago. Alabaina, hirigintzaren eta euskararen arteko harremana aztertzeke beharra aldarrikatzen duten ahotsak ugariagoak dira azken urteotan: Mikel Zalbide (2004, 2009), Erramun Baxok (2000, 2003), Roberto Manjón (2009), Eduardo Apodaka (2012), Koldo Izagirre (2010; Zabala, 2013), Xabier Bengoetxea Muxika (2012) eta Henri Duhau (2013) izan dira, besteak beste, hizkuntzaren eta hizkuntzalaritzaren alorretatik abiatutako zenbait iritzi interesgarriren emaile.

Hirigintzaren mundutik, baina, hizkuntzaren afera ez da aitatzen ere. Eta harrigarria da, ondareaz eta tokiko identitatea mantentzeaz asko mintzatzen direlako bai hirigintzako legeak bai hirigileak. Zaindu beharreko ondare bakarra arkitekturaren eta ingurumenaren alorrekoa balitz bezala. Azken urteetan, hala ere, dezente zabaldu da antzinako ikuspegi itxia, eta, iraunkortasunaren gai aski berriarekin batera, beste bi kontu gehiago ezarri dira mahai gainean, herritarren parte-hartzearena eta genero-ikuspegiarena, hasierako begirada batean hirigintzarekin erlazio hertsia ez dutela eman badezake ere. Hizkuntzaren faktorea ere kontuan hartzea, beraz, ez litzateke horren harrigarri, euskararen eta hirigintzaren arteko harremana ondo ikertuz eta azalduz gero.

DEMOGRAFIAREN ALDAKETA AZKARRAK

I

Demografiaren gorabeherek eragin handia dute hiztunen jardunaren bilakaeran, batez ere bapatean edo denbora labur samarrean gertatzen badira. Are gehiago hizkuntza minorizatuen kasuan, euskara kasu. Ez dugu oso urrunera jo behar horren adibide esanguratsu bat aurkitzeko: 1960ko eta 1970eko hamarkadetakako Hego Euskal Herrian jazo zen espainiar etorkinen oldeak herri askotako biztanleria bikoiztu eta are hirukoiztu zuen. Euskal Autonomia Erkidegoan, zehazki, 1.143.092 biztanle zeuden 1950ean, eta 2.072.430 soilik hogeita bost urte ondoren, alegia, 1975ean (Eustat). Bigarren industrializazioarekin erlazioatutako aldaketa demografiko bortitz hori bakarrik, aukeratutako hirigintza-

eredua edozein dela ere, aski da komunitate baten hizkuntza-dinamika errotik aldatzeko. Hala azaldu du Mikel Zalbide soziolinguistak (2009: 33), Legazpiaren adibidea hartuta:

Udalerrriaren erdi- eta behe-aldea zeharo industrialdurik zuen bertako enpresa nagusiak, 50eko hamarkadatik aurrera, eta langile-auzo trinkoaz horniturik. Industrializatzeko bizkor horren eraginez etorkin asko iritsi zen herrira Nafarroatik eta, batez ere, Gaztela aldetik. Erdal giroa nagusitu zen, horren eraginez, kaskoan eta langile-auzo handian. Aldiz udalerrriaren urrutiagoko baserri-eremuetan, batez ere Telleriarten eta Brinkolan, euskal giro tradizionalak nagusi izaten jarraitu zuen.

Alabaina, modu urbanistiko ezberdinak daude demografiaren gorakadari erantzuteko, hiriak egiteko eredu desberdinak dauden neurrian. 1960ko eta 1970eko eztanda demografikoaren karietara etxebizitza-poligonoak sortu ziren Espainian, eta *grand ensemble* direlakoak Frantzian, etxebizitza sozialen eskaria nolabait ase zutenak, kalitatean baino gehiago, kantitatean (Fernandez de Betoño, 2010: 10). Baionako Santa Gurutzeko ZUP² (1963-1974, 1.100 etxebizitza), Bilboko Otxarkoaga (1959-1964, 3.700 etxebizitza), Gasteizko Zaramaga (1959-1975, 4.120 etxebizitza), Donostiako Bidebietako Bakea (1963-1967, 750 etxebizitza) eta Iruñeko Donibane (1963-1973) dira ezagunenetakoak. Auzo horiek guztiek ezaugarri komunak dituzte: etxebizitza kopuru handiak bildu zituzten, oso azkar eraiki ziren —urbanizazio-lan eskasekin, askotan, hiriguneetatik urrun samar zeuden, eta modernitatearen hiri-ereduan zeuden oinarrituta, alegia, berdegune handiak diseinatuz eta ohiko korridore-kaleak alde batera utziz, etxebizitza-bloke altu eta irekien mesedetan. Hiri-eredu horrek —teorikoki, behintzat— ez zuen ahozkotatasunaren aldeko kaleko giroa bereziki sustatzen, baina, praktikan, etxebizitza-poligono aldendu horiek eduki zituzten arazo urbanistiko eta sozial larriek auzo-giroa indartzea lortu zuten, era bitxian, giro hori nagusiki erdarazkoa izan bazen ere.

SUBURBANIZAZIOAREN HIRI(TAR) MUTUA

Modernitatearen ustezko arrazionalismoaren ondoren iritsi zaigun hiri-eredua, baina, ez da onuragarriago gertatu, ahozkotatasunaren ikuspuntutik, bederen. Postmodernitatearen hiriak, askoz ere konplexuagoa —zatiatuagoa den heinean (Amendola, 1997)—, suburbanizazioaren fenomeno hedakorra mundu mailara eraman du. Amets amerikarraren ikur bihurtutako etxe familiabakarrak, ohiko hiri trinkoaren aurkakoa,

Demografiaren gorabeherek eragin handia dute hiztunen jardunaren bilakaeran, batez ere bapatean edo denbora labur samarrean gertatzen badira.

1960ko eta 1970eko hamarkadetako Hego Euskal Herrian jazo zen espainiar etorkinen aldeak herri askotako biztanleria bikoiztu eta are hirukoiztu zuen.

Alabaina, hiri-eredu aldiritarraren arazoa ez da soilik bizitegi-gune bakartuek osatutakoa. Ereduaren baitan beste lau zona nagusi baitaude: merkataritza-gune aldendu handiak, parke teknologiko eta bestelako bulego-gune isolatuak, ekipamendu publiko bakartuak

Iraunkortasunaren ikuspuntutik jasanezina izateaz gain, herritarren ahozkotasanaren aurkako eredia ere bada.

arrakasta itzela eduki du, besteak beste, negozio biribila dakarrelako: etxegintzaren sektore boteretsua indartzeaz gain, aldirietara iristeko beharrezkoak diren autogintzaren eta errepidegintzaren sektore garrantzitsuak ere sendotzen ditu, bai eta etxeak eta autoak erosteko ezinbesteko den banketxe-mailegugintza ahalguztiduna ere. Eta, gainera, irabazi ekonomikoez harago, etxe familiabakarra bizi-irabaziaren ikur ere bihurtu da, bizi-arrakastaren eta estatus sozial gorenaren ezaugarri.

Baita gurean ere. AEBko urbanizazio erraldoietara iritsi gabe, 1970eko hamarkadatik ditugu Laukizko Unbe-Mendi eta Mungiako Berriagamendi edo *La Bilbaína* urbanizazio eskusiboak, Gasteizko Estibalitz muinokoa eta Hondarribiako Jaizkibel urbanizazioa. Azken hamarkadotako adibideak are ugariagoak dira: Eguesibarko Gorraitz urbanizazioa, Senpereko lakukoa, Burguko Argomaizkoa, Mungiako Elordiganekoa... Zerrenda ia nahi beste luza daiteke.

Alabaina, hiri-eredu aldiritarraren arazoa ez da soilik bizitegi-gune bakartuek osatutakoa. Ereduaren baitan beste lau zona nagusi baitaude: merkataritza-gune aldendu handiak, parke teknologiko eta bestelako bulego-gune isolatuak, ekipamendu publiko bakartuak —hezkuntza-koak eta osasunekoak kasu, eta alde guztietarako errepide azkarrak (Duany; Plater-Zyberk; Speck, 2010: 5-7). Iraunkortasunaren ikuspuntutik jasanezina izateaz gain, herritarren ahozkotasanaren aurkako eredia ere bada. Primeran salatu du Koldo Izagirre idazleak, Aizarnazabal adibide (2010: 242-243):

Orain espaloi berri bat dauka Goiko Kolean, hirigintza garatu du: paretabitarteko etxe multzo bat, bideo-atezainekin, igerileku pribatuarekin. (...) Burges-koxkorraren ametsa, pribatukeria, etxe sarrera langatuak Aizarnazabalen, egitura urbanoan sortu tumore larri, lorategi itxituratuak, itxiturak keretaz itsutuak, eta gora behatuz gero, Aizarnazabalen, Eguberriz, Papa Noel ageriko zaizu urbanizazio berriko etxeetako balkoietan... Paretabitarteko multzo hesituok ez ote dira zirkulazio librearen traba, topagunearen aitziko, hizketaren etsai, hitzaren ukatzaile?

Cul-de-sac edo kale itsu makurrak, garajeetarako ateeak osatutako hiri-paisaia, *McEtxe* klonikoak, arratsaldeko 19:00etatik aurrera hutsik dauden hiri barruti monofuntzionalak, hesi zeharkaezinak eta bideozaintza-sistemak... Ez dirudi horrek guztiak herritarren arteko ahozkotasa gehiegi bultzatzen duenik. Ez euskarazkoa ez erdarazkoa, bai; baina egoera diglosiko desorekatu, ezegonkor eta gutxituan dagoen euskal hiztunen komunitateak askoz nabarmenago pairatuko ditu beti eragin horiek.

PORLANDIA EDO EUSKAL URBANIZAZIOA

I

Hala ere, arestian aurreratu bezala, etxebizitza berrien eraikuntzarena ez da kontuan hartu beharreko sektore bakarra. Bizitegiek besteko eragina baitute ekipamenduek eta azpiegiturek. Gero eta eragin handiagoa, gero eta ugariagoak diren heinean, Euskal Herri txiki eta antropizatu honetan, bederen. Oso artifizializatuta baitago euskararen lurraldea³, bereziki kostaldeko hiru herrialdeetako. Bi estaturen arteko leku estrategiko batean egoteak baditu onurak, baina baita etengabeko presio urbanistiko inbaditzaileak ere. EAeko Administrazioetik gidatzen diren lurralde-antolakuntzaren nondik norakoak, gainera, Lurraldea Antolatzeko Gidalerroak (LAG) izeneko agirian zehazten direnak, lurraldearen urbanizazioa zeharo areagotzen duen mundu mailako lehia ekonomikoaren alde egiten dute argi eta garbi. Bereziki “Euskal Hiria NET” izeneko LAG berriei dagokienean (EAeko Administrazioa. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila, 2012), hasierako onarpen ofiziala badutenak, zeinetan euskara ez den aipatu ere egiten, oraindik indarrean dauden aurreko LAGetako (EAeko Administrazioa, 1997) ohar biziki interesgarria harrigarriki alboratuz, non hurrengoa ziurtatzen baitzen (17. atala: “Kultur ondarearen antolamendua”):

Lurralde-antolamenduarekin zuzeneko erlazioa duen eta, hortaz, arreta eman behar zaion arkitektura-motako kultur ondarea alde batera utzita, bada, halaber, biztanleen bizimoduetan inplizitu dagoen kultur ondarea. (...) [Bizi]moduak globalizatzeko joerak eta joerak berak orokortzeak badu eraginik inguru hauetan ere, inolako zalantzarik gabe, eta gero eta desberdintasun gutxiago dute hurbilean duten inguruekin, eta homogeneizaziorako joera nabarmena dute, komunikabide handien eraginez batik bat.

Aurreko puntuarekin loturik, baina pisu espezifiko handiagoarekin, hizkuntzaren gaia aipatu beharra dago. Euskal idiosinkrasiaren funtsezko gotorlekua da. Kasu honetan, euskararen presentziak heterogeneotasun handia azaltzen du lurraldean zehar: inguru batzuetan ia ez da azaltzen eta beste batzuetan hizkuntza nagusia da. Inolako zalantzarik gabe, lurraldearen antolamenduko elementu batzuek, telekomunikazioen edo garraio-sareen garapenak esate baterako, funtsezko garrantzia izango dute hizkuntzaren eta ezagutzen transmisio-prozesuetan, inguru desberdinetako pertsonen artean sortzen dituzten erlazioen ondorioz. Lurraldearen antolamenduak, arazo honetan funtsezko elementua edo behin-betikoa ez izan arren, ezaugarri hauek kontuan hartuta ihardun beharko du, proposatzen diren iharduketek horien gainean izan ditzaketen eragina aintzat hartuz beti.

Inolako zalantzarik gabe, lurraldearen antolamenduko elementu batzuek, telekomunikazioen edo garraio-sareen garapenak esate baterako, funtsezko garrantzia izango dute hizkuntzaren eta ezagutzen transmisio-prozesuetan.

**Zeren eta
urbanizazio-
prozesu azkarrek
herrien kultura
errotik aldatzen
dutela aspaldi
esana dute
soziolinguista
adituek.**

EAEko lurralde-plangintzarako tresnen gailurrean dauden LAGek hori hain argiro ziurtatuta, nola ote liteke eskualdeka —beherago, eta, hortaz, zehatzago— garatzen diren Lurralde Plan Partzialek afera aitatu ere ez egitea? Eta nola ote liteke 1997ko LAGetan “funtsezko garrantzia” zeukan gai bat erabat desagertzea 2012ko LAG berrietatik? LAG berriek askotxo hitz egiten baitute “gure nortasuna sendotzeaz” (22 orrialdetan aipatzen da nortasuna⁴, alajaina), Euskal Herriko berezko hizkuntza —EAEko Autonomia Estatutuaren 6.1 artikulua gogorarazi behar da?— arraroki kontuan hartu gabe.

LAG berriak oraindik ez daude behin betikoz onetsita, eta, badira arrazoi nahikoak haiek goitik behera berriz planteatzeko, berandu baino lehen. EAEko lurralde-antolakuntzaren oinarri ideologikoak ezartzen dituen agiri garrantzitsu horren helburua —“Euskadi Europako zentraltasuneko gune gisa eratzea” (EAEko Administrazioa. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila, 2012: 31)— ez baitago jakintza-arloaren ohiko helburu nagusitik, hots, natura-baliabide-ekiko errespetuzko garapen sozioekonomiko orekatutik, gertuegi. Europako zentro-zentroan ez dagoen lurralde bat zentraltasun gisa eratzeko garraio-azpiegitura handiei —AHT, errepideak, portuak, aireportuak— protagonismo osoa eskaini behar zaie-eta, beste gai guztien gainetik. LAG berrien Euskal Hiriak metaforatik gutxi baitu. Benetako Euskal Urbanizazioa eratzeko gidalerroak baitira, euskal kulturaren behin betiko akabera ekarri dezakeena, batzuek aspaldi iragarri —eta bedein-
katu— bezala (Lekuona, 1966):

Bedeinkatzen dut / porlandiak duen galera.
Izadiaren aberastasun / hori galtzea hobe da;
eta gehienak iritsi bitez / giza-neurriz bizitzera.
Utziko ditut baserria eta / nentorke dena uztera,
utzi agian euskara; / baina irits bitez,
pobre guztiak / eguneroko ogia izatera.

Euskararen utziera, Porlandiak duen aberastasun-galera, bai, baina ez giza neurritz bizitzeko, ezta guztiok eguneroko ogia erdiesteko, Lekuonak zioen bezala, baizik eta mundu-neurriz bizitzeko eta gutxi batzuek negozio biribila egiteko. Eta gehienok baserria aspaldi utzi bage-nuen ere, metropolizazio-fenomenoa areagotzen duen helburu sozialaz mozorrotutako garapenkeriak euskararen arnagune diren herri txiki eta ertainak, euskaldunon benetako bihotz-guneak (Bilbao, 2014), arnas taupadarik gabe utzi eta —barkatu apokaliptikokeria— hilgarriki beti-

rako ito ditzake. Zeren eta urbanizazio-prozesu azkarrek herrien kultura errotik aldatzen dutela aspaldi esana dute soziolinguista adituek⁵. Egia da euskararen herria ez dela “inolaz ere herri isolatu bat izan, baizik eta beti jakin izan duela aro berriei egokitzen nortasuna galdu gabe” (Etxegoien, 2001: 64), baina azken hamarkadotako globalizazioaren suburbanizazio- eta metropolizazio-fenomenoak erabat berriak direla ere onartu eta eraginkorki aurre egin beharko genieke, ahozkotasunerako, oro har, eta, euskal hiztunontzako, bereziki, oldar ezezagun bezain definitiboan ekarri dezaketelako.

ONDORIOA: ZENBAKIAK ETA (HIZTUNEN) KOMUNITATERAKO HIRIGINTZA

I

Alor gehienetan bezala, kantitatea bezain garrantzitsua da kalitatea, baita afera garrantzitsu bezain alboratu honetan ere. Zenbat eraikitzen den —eta horrek zenbat erdal hiztun erakartzen dituen— bezain itzal handikoa da nola egiten den, alegia, zer hiri-ereduri jarraiki egiten den eta zer abiadurarekin. Bi alorrak hartu beharko dira kontuan, edozein azterketa zein proposamen babesle edo zuzentzaile egiteko orduan.

Alde kuantitatiboan, geolinguistikaren eta hizkuntza-geografiaren alorretako ohiko hizkuntza-atlasen ekoizpen neutrotik haragoko jauzia behingoz eman beharra dago, urbanizazio mailaren —etxebizitzaren, ekipamenduen eta azpiegituren eraikuntzaren— eta euskararen galeraren arteko egiaztapen zalantzaezinak modu ahalik eta zientifikoenean bilduz. Horretarako, inkesta soziolinguistikoetan lurralde-antolakuntzaren eta urbanizazio mailaren geruza garrantzitsuak ere kontuan hartu beharko lirateke, esaterako, Eusko Jaurlaritzaren EAEko V. Inkesta Soziolinguistikoaren laburpenak dakarren ohar kezagarriaren aferan gehiago sakondu ahal izateko (EAEko Administrazioa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2012: 16):

Azken 20 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak gora egin du apurka-apurka EAEan (batez beste 4 puntu). Igoera hori hiru lurraldeetan eta lehenengo hiru gune soziolinguistikoetan gertatu da. Laugarren gune soziolinguistikoan⁶, aldiz, euskararen erabilerak behera egin du (7,5 puntu 1991tik hona). Beherakada horren atzean azken urteotan hirigune erdaldunagoetatik gune euskaldunetara bizitzera joan direnen hizkuntza-ezaugarriak daude.

Baina zehazki zenbat joan dira bizitzera? Eta zehazki nora joan dira bizitzera? Eraiki berriko etxebizitzetara? Benetan bizitzera joan dira, ala bigarren etxebizitzak dira erosi dituztenak? Behingoz erantzun be-

Azken hamarkadotako globalizazioaren suburbanizazio- eta metropolizazio-fenomenoak erabat berriak direla ere onartu eta eraginkorki aurre egin beharko genieke, ahozkotasunerako, oro har, eta, euskal hiztunontzako, bereziki, oldar ezezagun bezain definitiboan ekarri dezaketelako.

***Inkesta
soziolinguisti-
koetan lurralde-
antolakuntzaren
eta urbanizazio
mailaren geruza
garrantzitsuak
ere kontuan
hartu beharko
lirateke.***

harreko galderak ditugu, lurralde-antolakuntzaren eta hizkuntzaren arteko erlazioa benetan kontuan hartuko badugu. Esaterako, ez da kasualitatea azken 30 urteotan 4. gune soziolinguistikotik 3. gunera jaitsitako Gatika, Maruri-Jatabe eta Meñaka udalerriak Mungialdekoak izatea, alegia, Bilbo(alde)ren presio urbanistikorik handiena jasaten ari den eskualdekoak. Hiru udalerri horietako azken 20 urteotako etxebizitza-bilakaera harrizkoa da (Eustat): Gatikak 340 etxebizitza zeuzkan guztira 1991n, eta 706 etxebizitza 2011n (% 208ko igoera); Maruri-Jatabe 209 etxe edukizetik 463 edukitzera pasa da (% 222ko igoera); eta, Meñaka, 154tik 322ra (% 209ko igoera).

“Gure lurraldeak iragan hurbilean izan dituen aldaketa linguistikoak jartzen badira, paper garden baten gisa, aldaketa urbanistikoaren kartografiaren gainean, ez da hain zaila ikustea bataren eta bestearen arteko loturak, kointzidentziak, eraginak” zuzen dio Andu Lertxundik (2014), baina zenbakiak jar diezazkiegun mota horretako baieztapenei. Dabid Anaut filologoak gardenki aldarrikatutakoaren ildotik (2014), “Arnasguneak. Ezaugarriak. Zenbait arnasguneren egoeraren behaketa” (Bengoetxea, 2012) bezalako ikerketa interesgarriak, zeinetan Tolosaldeko lau arnasgune geografikoren —Alegia, Amezketak, Asteasu eta Berastegi— hizkuntza-ohituren bilakaera aztertu den, Euskal Herri osoan zehar zabaldu beharko lirateke, berandu gabe. Izan ere, Tolosaldean bildutako datuak negatibo samarrak dira, eta hurrengoak da Bengoetxeak egindako irakurketa erakargarri bezain kezagarria (2012: 106):

Dislokazio demografiko horretan, urbanizazioak zerikusi zuzena izan du. Herri horietan hazkundea 1996tik aurrera eta, zehazkiago, 2001etik aurrera gertatzen da. Hain zuzen, etxebizitzaren gorakada gertatzen den garai bertsuan. Hamar urteko tartean (1996tik 2006ra) aztergai ditugun herri horietan 443 etxebizitza gehiago dago EUSTATEko datuen arabera. Urbanizazio horrek, ezinbestean izan behar du eragina herriko demografian eta bizimoldean. Oso da adierazgarria aldagai horien guztien urteotako bilakaeraren grafikoak ikustea. Hau da, biztanleena, etxebizitzena, euskaldunen dentsitatearena, ama-hizkuntzarena eta etxean erabiltzen den hizkuntzarena. Lehenengo bi grafikoetan, biztanleen eta etxebizitzaren alegia, goraka doazen hein berean, beste hiruretan, hau da, euskaldunen dentsitatearenean, ama-hizkuntza euskara dutenengan eta etxean euskara erabiltzen dutenengan beherakada doaz. Korrelazio zuzena dago. Ez hori bakarrik: zenbat eta pikoagoa izan gorakada hori, orduan eta pikoagoa da beherakada ere.

Alde kualitatiboan, berriz, hirigintza-ereduaren inguruko eztabaida urbanistikoagoa legoke. Arnasgune geografikoak hizkuntza-komunitate

demografikoki trinkoak badira (Zalbide, 2009: 39), nekez eduki baitezakete adierazpen espazial barriatua, azken hamarkadotan hainbeste zabaltzen ari den suburbanizazioaren hiri-ereduan jazotzen den bezala. Bizimodua fisikoki hainbeste baldintzatzen duen hirigintza faktore oinarrizkoa baita komunitate baten eraikuntzan, eta, horrenbestez, komunitate horren ahozko jardunean ere. Estrategia urbanistiko argi bat eduki beharra dago komunitatea hiri-eredutik beratik indartu —edo, gutxienez, ez kaltetu— nahi bada.

“Auzo-giroa, halaber, suntsituz joan da. Herri horietako askotan ez dago kale girorik. Hutsak daude. Harreman-sareak eten egin dira, ahuldu. Etxe berrietako itxiturak, zuhaixka zainduz hesituak, kaletartze-prozesua areagotzeaz gain, bakoitzak berean ixteko joeraren irudia islatzen du” dio, halaber, Bengoetxeak (2012: 108), Tolosaldeari buruz, hirigintza-ereduaren mamian begia joz. Komunitatea indartzeko hirigintzaren xedea kale-giroa sustatzen duen auzoa diseinatzea eta eraikitzea baita. *Traditional Neighborhood Development* esaten diote aditu estatubatuarrek (Duany; Plater-Zyberk; Speck, 2010), hango hirigintza-eredu barriatua irauli nahi duen *New Urbanism* izeneko mugimenduaren barnean; guretat, ordea, ohiko hirigintza tradizionala litzateke, hots, gure herri eta hirietako alde zahar eta zentroetan betidanik bizi izan duguna, zeinak ezaugarri ezagunak dituen: autoaren erabilera alferrekoa bilakatzen duten erabilera mistoak —auzoan bertan lo eta lan egitea, ikastea eta aisiaz disfrutatzea ahalbidetzen baitute—, oinezkoei protagonismoa itzultzea giza eskalako ohiko korridore-kaleak sustatuz —tokiko dendatxoak eta tabernak edukitzen dituztenak— eta hazkunde argi eta mugatua, auzoen izaera ahalik eta gehien mantendu ahal izateko (hiri handia, hortaz, hainbat auzo mugaturen batuketa egituratua litzateke).

“Arkitektoak edo urbanistak hori guztia aintzat hartzen du bere lana egiterakoan?”, egokiro galdetu du Lertxundik (2014). Komunitaterako hirigintzari dagokionez, baietz erantzun beharra dago, kasu batzuetan berderen: Léon Krier —edo jada aipatutako Andrés Duany— eta Jan Gehl arkitekto eta hirigileak, esaterako, aspalditik ari dira giza eskalako hiri geldoen⁷ aldeko corpus teorikoa sutsuki lantzen, parametro ezberdinetatik. Krier alde arkitektonikoan gehiago zentratzen ari da (2013) eta Gehl alde gizatiarrean (2014); biak ala biak, gertuko harreman sozialak —ahozkoak barne— bultzatuko duten habitat eraikiaren diseinuan. Hori guztia, hala ere, ez da hizkuntza-ikuspegiarekin kontzienteki gehiegi uztartzen, gaur-gaurkoz, are gutxiago hizkuntza minorizatuen ikuspegiarekin.

Eskala zertxobait jasoz, halaber, hiri-komunitaterako auzoaren lurralde mailako baliokidea eskualdea litzateke, gehienetan bailararekin

Hori guztia, hala ere, ez da hizkuntza-ikuspegiarekin kontzienteki gehiegi uztartzen, gaur-gaurkoz, are gutxiago hizkuntza minorizatuen ikuspegiarekin.

**Hirigile
gehientzat
eraikinek eta
naturak soilik
osatzen baitute
ondarea.**

bat egiten duena, lurralde-plangintzan erabiltzen den area funtzionalaren⁸ eremu aski artifizialaren aurrean. Eskualde bakoitza indartzeak tokiko dinamikak suspertzea ekarriko lukeelako, maila guztietan, baita maila soziolinguistikoan ere, zeinetan, akaso, euskararen tokiko aldaerek ere zeregin handia eduki lezaketen. Eskualdea xede, beharbada etorkizuneko arnaguneen hedatze estrategiko batengan pentsatzea ere ez litzateke erokeria bat: ingurumenaren alorrean natura-parke solteak korridore berdeen bidez saretzea azken urteotan proposatzen ari den bezala (EA-Eko Administrazioa. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila, 2012: 137-140), arnagune solteak ganoraz lotzeko eta saretzeko estrategiak haztatu litezke. Beste modu batera esanda, 4. gune soziolinguistikoko udalerriek inguratutako 3. gune *uharte-udalerriak* egon beharko lirateke arnaguneak zabaltzeko estrategien erdi-erdian.

Ederki laburbildu du Onintza Iruretak aferaren aurpegi-bikoiztasuna (2014: 6): “Etxebizitza berriak egin eta gaztelania hiztunak jasotzeak inpaktua du, inpaktu handiagoa biztanle gutxiko arnaguneetan. (...) Urbanizazio motak ere badu eragina, etxe multzo bakartuek bilakaera sozial, kultural eta linguistikoan eragiten dute”. Hizkuntzalari ugari arazo horren jakitun —susmodun, gutxienez— dira. Hirigileak dira harreman hori hain argi ikusten ez dutenak, arestian esan bezala. Hirigile gehientzat eraikinek eta naturak soilikosatzen baitute ondarea. Hirigintza-planak gelditu edo eraldatu dira Igeldoko igeltxoagatik —Donostiako Ibaetako industrialdearen handipena⁹—, europar bisoiagatik —Ondarroako Aieriko auzoa, ia 500 etxebizitza berrirekin— edo paduretako ornogabeengatik —Plentziako eta Barrikako Txipioko urbanizazioa, 750 etxe eta 600 atrakalekuko kirol-portuarekin—, baina *Homo vasconicus* espeziearen habitata gotik behera desnaturalizatzeak ez du ia inor kezkatzen. Hala ere, *Homo* —eta *Mulier*— *vasconicusa*, izaki gehienen moduan, lurralde jakin batean bizi da, espazio zehatz batean: Euskal Herria deitzen duten horren iparraldean —benetako iparraldean—, hots, ipar-isurialdean, eta, bereziki, euskararen arnagune diren herrietan. Ez genuke hori ahaztu behar izango.

Hizkuntzalaritzan lurralde-ikuspegia txertatu. Lurralde-antolakuntzan eta hirigintzan, hizkuntzarena. Baietz euskaldun guztiok irabazi!

DISKRIMINAZIOAZ SEI EPILOGO-AIPU

I

“Erredakzioan norbaitek galdetu du erdi txantxetan ea Amezketan bizi ahal izateko Euskararen Gaitasun Agiria edukitzea eskatuko ote duzuen” (Vocento taldeko kazetari batek artikulua egileari, GFAk, Kontseiluak,

UEMAk eta UEUK 2014ko urtarrilaren 16an eta 17an Donostian antolatutako *Lurraldea eta Hizkuntza* lehen jardunaldien kariatara).

“El castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla (...)” (1978ko Espainiako Konstituzioa. 3.1 artikulua).

“En la solicitud de carta de naturaleza o de concesión de nacionalidad por residencia se indicará especialmente (...) si él y su mujer no separada hablan el castellano” (1958ko Espainiako Erregistro Zibilaren Erregelamendua. 220. artikulua).

“La langue de la République est le français” (1958ko Frantziako Konstituzioa. 2. artikulua).

“Nul ne peut être naturalisé s’il ne justifie de son assimilation à la communauté française, notamment par une connaissance suffisante, selon sa condition, de la langue, de l’histoire, de la culture et de la société françaises (...)”. (Frantziako Kode Zibila. 21.24 artikulua).

“Based on the right of domicile in Åland [Islands]¹⁰, aliens and businesses with a non-domicile majority need the regional government’s permit to acquire or lease real estate” (Ralli; Weckström, 2009: 4). ●

OHARRAK

1. Barojaren sailkapenaren arabera, hiru giza finkamendu nagusi daude Euskal Herrian, guztiak ibaietatik gertu: maldan kokatutakoak, muino edo goi-ordokietakoak, eta haranetako hondoetakoak (2000: 30).

2. *Zone à Urbaniser en Priorité*, 1958ko abenduaren 31ko 58-1464 zenbakidun dekretuak izendatutako eremuak, alokairuko gizarte-etxebizitza masiboak eraikitzeko egokiak omen zirenak.

3. Administrazioak berak ere onartzen du: “Lurzoruaren artifizializazioa osagai edo elementu kritikoa da gure lurraldean. Gutxi gorabehera, EAEn azaleraren % 6,79 azpiegiturei eta eremu urbanizatuei dagokie jadanik gaur egun” (EAEko Administrazioa. Ingurumen, Lurralde Planigintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila, 2012: 23). Espainierazko bertsioan % 7,3 dator, bitxia bada ere (lurzoru gutxiago beteko ote dugu euskaldunok?).

4. Orrialde hauetan: 7, 13, 25, 26, 28, 30, 46, 48, 52, 66, 71, 72, 73, 80, 89, 90, 91, 92, 93, 95, 99 eta 113.

5. Esaterako, David Crystal emankorrek hurrengoa ziurtatu zuen (2001: 93): “Urbanizazio-fenomenoak landatar komunitateentzat polo magnetikoen modura funtzionatzen duten hiriak sortu ditu, eta garraioaren eta komunikazioen arloetako aurrerapenek haienganako irisgarritasuna erraztu die” (egilearen itzulpena). Gurean Mikel Zalbidek ere behin baino gehiagotan (2003, 2004, 2009) aipatu izan du urbanizazio-fenomenoaren eragina; esaterako (2003): “Hiztun-kopurua ez da (...) demolinguistikazko aldagai inportante bakarra: hiztun horien lurralde-banakera, beren kontzentrazioa eta urbanizazio-maila ere punta-puntako aldagaiak dira”.

6. Lehen gune soziolinguistikoko euskaldunak % 20 baino gutxiago diren guneak biltzen ditu; bigarren guneak, % 20 eta % 50 bitartean direnak; hirugarren guneak, euskaldunak % 50 eta % 80 bitartean direnak; eta, laugarren guneak, euskaldunak % 80 baino gehiago direnak.

7. *Slow Food* mugimenduaren filosofia hirigintzaren alorrerako ere aldarrikatu dute *New Urbanism* delakoaren inguruko hirigileek, *Slow Urbanism* izenarekin.

**Hizkuntzalari-
tzan lurralde-
ikuspegia
txertatu.
Lurralde-
antolakuntzan
eta hirigintzan,
hizkuntzarena.
Baietz euskaldun
guztiok irabazi!**

8. 1997ko LAGek 15 area funtzioaletan banatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoa (EAEko Administrazioa, 1997).
9. *Hyla Meridionalis* zuhaitz-igel urria Gurelesa fabrikaren ondoko urmael naturalean ugaltzen zen. 1999an bertan eraiki zen, eta, igeltxo laguntzeko neurri zuzentzaile gisa, 17 urmael artifizial eraiki ziren.
10. Åland uharteek Finlandiaren barneko lurralde autonomo bat osatzen dute, zeinetan suedieraz hitz egiten den. Haren autonomia-estatutu berezia, 1991koa, Europar Batasunak ere onartu zuen 1994an, Finlandiaren atxikimendu-itunari egindako protokolo berezi baten bidez (11994N/PRO/02).

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Anaut, D. (2014). "Lurralde-antolakuntzaren eta hirigintzaren eraginaz", *Lurraldea eta Hizkuntza. Hizkuntza eta Lurraldea. I. Jardunaldiak*, GFA, Konseilua, UEMA, UEU, Donostia.
- Apodaka, E. (2012). "Euskaltasuna, hiritik begiratuta", *BAT. Soziolinguistika aldizkaria*, 83, 31-56. [ISSN 1130-8435].
- Amendola, G. (1997). *La ciudad postmoderna. Magia y miedo de la metrópolis contemporánea*, Celeste, Madril. [ISBN 84-8211-239-2].
- Baroja, J. C. (2000). *Los vascos*, Istmo, Madril. [ISBN 84-7090-010-2].
- Baxok, E. (2000). "Hizkuntza eta lurraldea", *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 35. [ISSN 1130-8435].
- (2003). "Euskara eta euskal eurohiria: Ipar Euskal Herriko ikusmolde bat", *BAT. Soziolinguistika aldizkaria*, 47, 65-72. [ISSN 1130-8435].
- Bengoetxea, X. (2012). "Arnasguneak. Ezaugarriak. Zenbait arnasgunearen egoeraren behaketa", *BAT. Soziolinguistika aldizkaria*, 85, 75-118. [ISSN 1130-8435].
- Bilbao, P. (2014, urtarrilak 14). "Bihotz-guneak", *Berria*, 6.
- Crystal, D. (2001). *La muerte de las lenguas*, Cambridge, Madril. [ISBN 84-8323-134-4].
- Duany, A.; Plater-Zyberk, E.; Speck, J. (2010): *Suburban Nation. The Rise of Sprawl and the Decline of the American Dream*, North Point Press, New York. [ISBN 978-0-86547-750-6].
- Duhau, H. (2013, irailak 6). "Hil edo biziko hautua egin behar dugu", *Berria*. EAEko Administrazioa. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingu- rugiro Saila (1997). "Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak", Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- EAEko Administrazioa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2012). "Euskal Autonomia Erkidegoa. V. Inkesta Soziolinguistikoa", Gasteiz.
- EAEko Administrazioa. Ingu- rumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila (2012). "Euskal Hiria NET. Lurralde Estrategia Berria. LAGen aldaketa, horien berrazterketaren ondorioz", Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

- Etxegoien, J. C. (2001). *Orekan. Herri eta Hizkuntzen ekologiak*, Pamiela, Iruñea. [ISBN 84-7681-345-7]
- (2001). *Orhipean. Gure herria ezagutzen*, Pamiela, Iruñea. [5. argit. ISBN 84-7681-343-0]
- Fernandez de Betoño, U. (2010). “Gizarte-espazioaren eraikuntza. Europar etxebizitza sozialen historia laburra”, *Aldiri. Arkitektura eta abar*, 1, 8-11. [ISSN 1889-7185]
- Gehl, J. (2014). *Ciudades para la gente*, Infinito, Buenos Aires. [ISBN 978-987-9393-80-2]
- Irureta, O. (2014). “Hizkuntza eta lurralde antolaketa. Zer gertatzen da herri euskaldunetan mila etxe eraikiz gero?”, *Argia*, 2.410, 4-8. [ISSN 0213-909X]
- Izagirre, K. (2010). *Autopsiarako frogak*, Susa, Zarautz. [ISBN 978-84-92468-26-3]
- Krier, L. (2013). *La arquitectura de la comunidad*, Reverté, Bartzelona. [ISBN 978-84-291-2302-9]
- Lekuona, J. M. (1966). *Mindura gaur*, Apaiztegia, Donostia.
- Lertxundi, A. (2014, urtarrilak 26). “Hiriaren mintzoa”, *El Diario Vasco*, 29.
- Manjón, R. (2009). “Euskararen jarraipena eta azpiegitura handiak Euskal Herrian”, *BAT. Soziolinguistika aldizkaria*, 72, 69-97. [ISSN 1130-8435]
- Ralli, T.; Weckström, K., (2009). “Real Property Law and Procedure in the European Union. National Report. Finland”, European University Institute, Florentzia.
- Sarasua, J. (2011). “Egungo norabide batzuk eta hizkuntzen ikuspegi ekologikoa”, *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 81, 123-142. [ISSN 1130-8435]
- Zabala, J. L. (2013). “Langileen munduarekin zerikusia duen guztia suntsitu dute Donostian (Koldo Izagirreri elkarrizketa)”, *Berria*, 30-31.
- Zalbide, M. (2003). “Ahuldutako Hizkuntza Indarberitzea: teoriak zer dio?”, *erabili.com*.
- (2004). “Joshua A. Fishman-en RLS edo HINBE”, *erabili.com*.
- (2009). “Aurrez aurreko jardunaren lekua HINBE-saioretan”, *Udaltop*.